

2006
Koaderno
sindikalak
Abarrekoak

Pertsonen zainketa aztergai



Formazioa

Pertsonen zainketa
aztergai

EUSKO JAURLARITZA
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

lagundu du prestakuntza sindikalerako
txosten hau finantziatzen.

*Aukera
Berdintasun
Plana*



Aurkibidea

AURKEZPENA

1.- ZAINKETA: EMAKUMEEI EGOTZITAKO LANA

2.- ZAINKETA JASOTZEKO ESKUBIDEA ETA ZAINZAILEA EZ IZATEKO ESKUBIDEA

3.- ZAINKETA LANAREN EREDUAK

4.- ZAINKETA ARDURA ETA ARDURA LABORALAREN ARTEKO BATERAGARRITASUNIK EZA

5.- ZAINKETA ZERBITZUAK EREMU PUBLIKO ETA PRIBATUAN

6.- JENDARTE BABES POLITIKA BERRI BATEN BEHARRA

7.- LAB SINDIKATUAREN JARRERA ETA PROPOSAMENA

Koaderno sindikalakabarrekoak



Aurkezpena

Pertsonen zainketa aztergai jarri dugu koaderno sindikal honetan jakitun gai konplexu baten aurrean gaudela. Konplexua, gero eta beharrezkoagoa delako sozialki, sindikalki eta politikoki erantzutea pertsonen bizi zikloetan sortzen diren menpekotasun egoerei. Konplexua, deseraike eta berreraiki prozesu batean murgildu garelako. Izan ere, orain arteko zainketa ereduak, emakumeen ardura eta dohako lanean oinarritzen dena, emakumeen askapen borroka porrotera eraman eta deuseztatzen ari da. Bien bitartean, irtenbidea aurkitu eta eredu berria sortzea ezinbesteko bilakatzen ari da. Testuinguru horretan gakoak dugu, eredu berria zehaztea. Gure ikuspuntutik, emakume eta gizonen erantzukidetasunetik abiatuz jendarte erantzukizuna sustatu behar du. Horretarako, zainketa sistema publiko unibertsala sortzeko neurri politikoekin batera, zainketa zerbitzuak osatu eta lan harremanen eremuan bizi eta lan ardurak bateragarriak egiteko neurriak martxan jarri behar dira.

Halaber, aipatutakoaz gain, sektore honetan diharduten langileen egoera ezberdinak aintzat hartu eta irtenbide duina bilatu behar da; beti ere, eskubide ekonomiko, lane-ko eta babes sozialekoak bermatuko dituen kalitatezko enpleguaren bidez.

Zainketa arazoari aurre egiteak hainbat eremutan eragitea eskatzen du:

- Sindikatu barruan, lehenasunezko aztergai bilakatzea. Honek **SINDIKATU OSOAREN INPLIKAZIOA** eskatzen du, modu integralean, alegia, genero eta sozial ikuspuntutik. Azken finean, sindikatu osoa inplikatzeko beharrezkoa dugu eskubide batez ari garelako. Beti ere, aintzat hartuz Babes Sozialerako Euskal Esparruaren egituratze eta eraikuntzean ari garela.
- Babes politika berria eraikitzearen alde dauden indarrekin elkarlana sustatzea. Emakume talde, sindikatu eta **ERAGILE SOZIALEKIN GURE KONPROMISOA GEHITU**, urratsak eman eta ekarpenak egin.
- **ZAINKETA EUSKAL SISTEMA** denon artean bultzatu eta definitzea. Horretarako denok parte hartuko dugun prozesu partehartzailea ahalbideratuz.

Aurkezten dizuegun koaderno sindikal hau Emakume Idazkaritzatik landu duguna da. Orain, LABeko kide guztien esku uzten dugu, landu, jorratu eta ekarpenak egiteko.

1. Zainketa: emakumeei egotzitako lana

Gaur egun, Euskal Herrian, beste herrietan bezala, pertsonen zainketa kontzeptua, aztergai dago ikuspuntu ezberdin eta anitzetatik. Hala ere, azterketen iturburuari erreparatuz gero, badago arreta deitzen digun konstantea: emakumeen eskubideen aldeko mugimenduaren aintzindaritzea. Hau egiaztatzeke aukera bertan dugu. Gure inguru hurbilenara so egiterakoan ikus dezakegu mugimendu feminista, emakume taldeak, sindikatueta emakume arloak eta oro har, emakume instituzioak direla, besteak beste, zainketa behar duten pertsonen gaia mahai gainean jarri dutenak. Argi dago aipatu aintzindaritzea ez dela kasualitatea, ondorio logikoa baizik.

Zertaz ari gara? Historian oso atzera egin gabe, sistema kapitalistaren hastapenetara, alegia; gehienetan ezkutatu, ahaztu edota behar adina aintzat hartzen ez den sistemaren osagaia aurki dezakegu: bere izaera patriarkala, emakumeen menderatzailea. Kapitalismoak bere merkatu ekonomia basatia mundu osoan hedatzeko asmoz, behar duen lan eskuaren birproduktzioa eta berriztapena bermatzeko, pertsonak sexuaren arabera bereizi eta lan banaketa erradikala ezarri zuen. Era horretaz konponbide maltzurra eman nahi izan dio pertsonen biziraupenerako eta ongizaterako ezinbestekoa den zainketa beharrari. Izan ere, gizonak lan merkatuaren ekoizpena bideratzen dituen bitartean, "etxe lanak" izenpean biltzen diren jardura anitzen baitan, emakumeoi pertsona orok behar izaten dugun zainketaren ardura egotzi digu. Beraz, logikoa da emakumeok gutxiesten gaituen bereizkeria erauzteko borrokatzea; besteak beste, egotzitako zainketa arduraren emakumetzeara ezaba dadin eta zainketa jasotzeko eskubidea denona izanik, berau bete eta orokortzeko politika instituzional eraginkorrak abia daitezten. Behar horretan datza mugimendu feministaren aintzindaritzea zainketaren inguruko hausnarketetan.

2. Zainketa jasotzeko eskubidea eta zaintzailea ez izateko eskubidea

Emakumeok burutzen ari garen iraultza eraldaketa sakonak eragiten ari da familia egituretan, lan munduan, instituzioen politiketan, ekonomian, kultur eta hezkuntza ereduetan eta, oro har, pertsonen bizi behar eta moduetan. Emakumeok gara kolokan jartzen ari garenok egungo jendartearen antolamendua, gizonezkoek eta emakumezkoek parekidetasunean eta berdintasunean ihardun dezagun eragozten duena, alegia. Abagune honetan eskubideen aldarrikapena nagusitzen da; emakumeena ezezik, balore feministeen ikuspuntutik, pertsona ororenak direnak. Besteak beste, ezintasun egoeran pertsona orok zainketa jasotzeko duen eskubidea aldarrikatzen da, baina baita emakumeok halaber beharrez ezartzen zaigun zaintzaile izaerari uko egiteko duguna ere. Eskubide bat zein bestea ase ahal izateko eta aurrera egiteko modu bakarra dago: eskubide hauek aitortu eta sozialki onartzea zerbitzu sozio-komunitarioen sare integral publikoa eraikiz.

3. Zainketa lanaren ereduak

Oraindik ere, maizegi, zainketa afektibotasun aitortzatik azaldu ohi da, sentimenduen eremuari lotua, eta ez ordea lanari. Hori dela eta, zainketaileak diren emakumeen gehiengoak ukatua du langile statusa, eta beraz, prestazio sozial eta ekonomikoak ere. Bestaldekik, apurka-apurka, merkaturatzen joan den zainketa-aren lan segmentuan, soldatapean diharduen zainketaile kolektiboa dugu, gero eta egoera prekarioagoan, gero eta pribatizatuagoa den zerbitzuan, gero eta baldintza okerragoen pean. Gainera, euren lanaldiari, ondoan dituztenen zainketa eta arreta lana gehitu behar diotenen kasua ere badugu. Emakume hauek jasan ezina den stress egoerapean ari dira; izan ere, eredu kapitalista-patriarkalak gizonezkoei begira antolatua duen lan merkatuan ezinezkoa da jardura laborala norberaren eta bizikideen beharrek bateragarri egin. Azkenik, badago beste talde bat, estatistiketik islatzen dutenez ia osorik emakumezkoena, lan jardura murrizteko neurrietara jo dutenena; eta noski, horrek soldata eta eskubideetan ondorio murriztaileak ditu.

4. Zainketa ardura eta ardura laboralen arteko bateragarritasunik eza

Begi bistan dago, lan merkatuaren eraldaketa, bereziki, emakumeen parte hartzearen areagotzeari lotutakoa, desdoikuntza estrukturalak sortzen ari dela. Alabaina, sistemak ez die heldu nahi bere biziraupena kolokan jartzen baitute. Funtsean, gure bizitza osatzen duten eremuen banaketa iraunarazteko dagoen ezintasunaz ari gara; hau da, batetik, soldatapeko lanari dagokion eremuaren eta bestetik, soldatapekoa ez izanik, bizi beharren asetzearekin lotzen denaren arteko zatiketaz; eta azkenik, horri lotuta pertsonen sexuaren arabera sailkapenaz eta arduren atxikpenaz eremu batean ala bestean. Gaur egun, instituzio politiko-etatik bi eremu hauen bateragarritasunari heltzeko asmoa iragartzen dute eragin partzialeko neurri arautzaileen bidez. Horien eraginkortasuna mugatua da oso; batetik, enplegu egoera zeharo desberdina delako emakumezko eta gizonezkoen artean eta bestetik, gero eta orokorragoa den prekaritate egoerak lan eskubideak eskuratzea murrizten duelako, batez ere, emakumezkoen.

5. Zainketa zerbitzuak eremu publiko eta pribatuan

Administrazioaren jokabideari begiratzen badiogu, paradoxikoa badirudi ere, osatuz eta orokortuz joan beharko liratekeen zainketa zerbitzuekin kontrakoa ari dela gertatzen ikusten dugu. Zer esan nahi dugu? Euskal Herriko Administrazioek bideratu ohi dituzten zerbitzu publikoak betidanik urriak izan badira ere, benetako babes politika egituratzea axola ez dielako; gaur egun, eredu neoliberalaren eskutik egoera larriagotzen ari da. Nahiz eta, beharrianak areagotu zerbitzu motak gutxitzen eta pribatizatzen ari dira.

Pertsonen beharren aurrean merkatuaren interesak nagusitzen dituen politika neoliberalaren ondorioak, honela labur daitezke: zainketaren eskubidea etzaio pertsona orori bermatzen, klase aldagaia erabakiorra delarik. Dirudunek zainketa zerbitzuak merkatuan eros ditzaketen bitartean, dirurik ez duena konpon dadila. Nola? bere inguru hurbileneke emakumeen laguntzaren bidez, suposatzen da. Beraz, emakumeei atxikitutako menpeko rol sexistak indartzen dira. Aurrekoez gain, lan merkatuan diharduten etxe laguntzaile-zaintzaileak euren lan baldintzen etengabeko okertzea pairatzen ari dira.

Guzti honi emakume etorkinen afera gehitu behar diogu; izan ere, zainketa lanean dihardutenen artean gero eta gehiago dira; beharrianen hazkundeak lan-esku gehiago eskatzen duelako. Alabaina, etorkinak gehienetan ezkutuko ekonomian dihardute, aipatu merkatu ofizialaren kosto eta baldintza txarren azpitik, esklabuzatik gertu.

6. Jendarte babes politika berri baten beharra

Euskal Herriko biztanleriaren bilakaerari erreparatuz, zahartzea gailentzen den faktorea da. Faktore hau kezagarri eta, halabeharrez, erabakior bilakatzen ari da jendarte politikak definitzean. Aurreko lerroetan, LABen ikuspuntutik, gaur egungo zainketa politikaz dagoen utzikeria maltzurra azaltzen saiatu gara. Halere, gure ustez, gaur egun garrantzitsuena da: babes politika berria eraikitzearen alde dauden indar sozialak biltzea benetako babes politika diseinatzea eta martxan jartzea. Mugimendu feministak aurrea hartu du eta orain gainerako eragile sozial, politiko eta sindikalok gure konpromisoa gehitu, urratsak eman eta ekarpenak egin behar ditugu dagozkigun jarduera eremu anitzetan: sozial, ideologiko, sindikal, legislatibo, kultura eta hezkuntzari lotuta, administratibo-instituzional..., xede berberara norabidetu beharko da egun ez dugun zerbitzu soziokomunitarioen sare integralaren egituraketa, bi helburu lortzeko: zainketa jasotzeko eskubidea unibertsalizatzea eta zainketa lanaren aitortza eta duintzea bermatzea.

Ildo horretatik, iragan urtean, zenbait emakume taldek eta sindikatuetak emakume arlok kanpaina bat abiatu zuten lau elementu nagusi azpimarruz: menpekotasunean dagoen orok duen eskubidea zainketa jasotzeko, emakumeen eskubidea zaintzaile izateari ukatzeko, zainketa zerbitzu soziokomunitario publikoen exijentzia eta azkenik, menpekotasun egoeran daudenak zaintzeko legearen eskaera. Baina gure ustez, gai honi mugimendu feministatik ezezik, sindikalgintzatik ere heldu behar diogu, duen garrantziaz eta ditugun gabeziez jabetuz. Bistan dago, eredu sindikalaren arabera zainketa eskubidea modu ezberdinean ulertzen dela.

7. LAB sindikatuaren jarrera eta proposamena

Zainketa lehenasunezko aztergai bilakatu zaigu; bai ikuspuntu estrategikoan, Babes Sozialerako Euskal Esparruaren egituratze eta eraikuntzari lotuta, bai burutzen ari garen ekintza sindikal ereduari buruzko gogoetaren baitan. Beraz, hausnarketan sakontzea eta jokabide ildoak xedatzea beharrezkotzat jotzen dugu, nagusiki, bi helbururi heltzeko; batetik, zainketaren gaia era integralean lantzea da; hau da, genero eta sozial ikuspegiekin batera, zainketa lanean diharduten langileen lan baldintza eta eskubideen defentsa. Bestetik, euskal jendarte-an zainketa eskubidea aitortu, unibertsalizatu, bermatu eta zainketa zerbitzuak kualifikatu eta duindu daitezten aldaketak bultzatzen ari diren eragileekin elkar lanerako oinarriak jartzea da.

Gure ustez zainketa eskubideari dagokionez, gaur eta hemen, Euskal Herriko administrazioek honako lehenasun hauei heltzea ezinbestekotzat jotzen dugu:

1. Zainketa hitzaren atzean dagoena ongi ezagutzea eta azalaraztea, besteak beste:

Lehenik eta behin, Euskal Herriko menpekotasun egoeren beharrak definitu, detektatu, kuantifikatu eta aurreikusiz. Horretarako, biztanleriaren bilakaera oinarritzat hartu, balizko menpekotasun egoeren egungo diagnostika eta epe erdiko azterketa egin behar da. Hau da, administrazioek duten zerbitzuen ebaluaketa, ez soilik egun ematen direnei mugatuta, baita diagnostikoan agertu eta eza-gutzen ez diren balizko beharrak asetzeari begira ere. Halaber, zainketa beharren diagnostikoa klase soziala, genero aldagia eta etorkinen mugimendua aintzat hartu beharreko faktoreak dira.

Bigarren, zainketa bideratzeko egun dauden modu desberdinak agertu eta aztertuz, alegia, bizikidetzaren gunen baitan (familien barruan) burutzen dena, zerbitzu sozio-komunitarioen bitartez instituzio publikoek eskaintzen dutena eta lan merkatuan soldatapean egiten dena; azken hau ekonomia formalean zein ezkutukoan.

Hirugarren, zaintzaile lanetan diharduten gehiengo ia erabatekoa emakumeak izatearen zergatiak eta ondorioez gogoeta eginez. Besteak beste, honako errealitate hauek antzematen ditugu: emakumezkoen ezarritako "zeregina", eta ez lana, izatea eta beraz, prestazio ekonomiko eta babes sozialekoak ukatuta edukitzea; instituzioetatik bideratzen den zerbitzu gero eta subkontratatuago eta prekariogoa jardutea eta soldatapean, lan ezkutuan aritzea, lan eta babes eskubiderik gabe, etorkin gehien kasua.

2. Menpekotasun egoeretan zainketarako eskubidearen aitortzea

Zentzu horretan, erakunde publikoek eskubide hau bermatzeko ardura dute. Horretarako beharrezko diren zerbitzuak egituratu beharko lituzkete zerbitzu

soziokomunitarioen sare integral batean. Publiko eta unibertsal izaerak gailendu nahi ditugu, jendarte kapitalista patriarkalean klase eta genero diskriminazio faktore eragilean aurrean konpensatzaileak baitira.

3. Zainketa Euskal Sistema helburu

Egungo babes sozial politikek dituzten mugak eta gabeziak gainditzeko ohiko ahalmen politikoaren arazoarekin egiten dugu topo; hau da, euskal herritarrok, kasu honetan ere, ezin omen dugu erabaki eta egituratu behar dugun Jendarte Babes Sistema. Madril eta Parisen aginte pean gaude. Anitz dira ezarpenaren kontra egiten diren adierazpenak, gutxi ordea, hartzen diren neurriak.

Zainketa eskubidearen konplexutasuna handia da. Beronen inguruan, interakzioan ari dira, besteak beste, emakumeen eskubideak, soldatapean ez diharduten zaintzaileen eskubideak, soldatapean lan baldintza okerretan ari direnen eskubideak, kalitatezko zaintza zerbitzuak jasotzeko denok dugun eskubidea... Premia hauek asetzera norabidetuko gaituzten neurri instituzional-administratiboak behar ditugu. Eta asko dira, borondate politikoa egonik, dagoeneko abiatu daitezkeenak egungo egoera hobetu dadin. Horrekin batera, Euskal Herriaren burujabetzaren gauzatzea erreala aldarrikatzen dugunok, aukera ezin hobe dugu behingoz, diskurtsoetatik ariketa praktikoetara igarotzeko.

Euskal Herriko Jendarte Babes Politika egituratuko duen berebiziko tresnetariko bat Zainketa Sistema da; bere xedea, Euskal Herriko biztanleek zainketa jasotzeko duten eskubidea bermatzea izango delarik. Zainketa euskal Sistemaren hiru zutabe izan behar dira: neurri arautzaileak, zerbitzu sare publiko integrala eta politika fiskal justu eta berbanatzailean oinarritutako finantziario publikoa. Halaber, arautu beharreko edukien artean, gure ikuspuntutik, honako hauek aurreikusten ditugu: zainketa jasotzea exigitzen duten kontingentziak zehaztea, kalitatezko zerbitzu sareak eratzea ikuspegi konpensatzaile-berdintzailean oinarrituz, besteak beste, ahalmen ekonomikoa, egoera soziala eta genero ekitateari dagokienez; zainketa lanaren aitortza, duintze eta kualifikazioa; lan horretan, egoera formalean zein ez formalean dihardutenen baldintza eta eskubide ekonomiko zein lanekoak finkatzea. Horietaz gain, Euskal Jendarte Babes eta Zainketa Institutua osaketa jaso behar du. Beronetan administrazioak, antolakunde sozial, sindikal eta mugimendu feministaren esku hartzeari beharrezkoa deritzogu.

LABen proposamena honako urratsetan laburbil daiteke:

- Euskal Herriko biztanleriaren zainketa egoera eta beharren ikerketa. **DIAGNOSIAK**, gure herria zaitzen duten hiru eremu juridiko-administratibotan eragiten duten babez sozialeko politika orokorreaz gain, diputazio eta udalen zainketa-zerbitzuen politikak jaso behar ditu.
- Diagnosiaren gainean **KALITATEZKO ZAINKETA ZERBITZU SARE INTEGRALA ERAZTEKO PROPOSAMENA** burutu eta epe zehatz batean aurkeztu behar da; eztabaidatu, osatu eta adosteko, bestak beste, zaintzaileen kolektiboa osatzen duten emakumezko langileekin (soldatapekoak zein soldata gabekoak izan).
- Jendarteari eta espezifikoki emakumeei zuzendutako **SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK** jarri behar dira martxan zainketaz dagoen sexuak deuseztatzeko eta,
- Zainketa eskubidea bermatuko dituzten **NEURRI EKONOMIKO, EGITURATZE SOZIALEKO ETA LEGEZKOAK** hartu behar dira.